

Barojaren euskalzaletasuna (2)

Deia, 1983-09-12.

Askotan aipatzen den gaia da hau: Pio Baroja, euskalzale al zen ala ez?

Batetik, euskalduna zen, bai sortzez, bai deituraz eta baita zertxo bat hizkuntzaz ere. Objektiboki, oinarri horiek hor daude. Bestalde, badakigu don Pio berak esandakoetatik, ez zela abertzalea, eta ezta nazionalista ere. Euskalzaletasuna beste zerbait da, ordea; neurtzen zaila; hala ere, honen dato batzu neurgarri direlakoan idatzi zuen 1968an abertzale zen batek, *Eloy Lezea Placer*-ek: *Lo vasco en Pío Baroja*,¹ eta gaur honen atal baten laburpen eskeini nahi nuke: "Baroja bera euskaldun bezala deskribatzen da".

Ez zuen don Piok euskal jatorria saltzeko: "Nire lehen deiturak, bat ezik, denak euskaldunak dira: *Baroja*, arabarra da; *Nessi*, Comokoa, Lonbardian; *Zornotza*, bizkaitarra; *Goñi*, izen hau daraman bailarakoa; *Alzate*, nafarra, beratarra; *Izagirre*, hondarribiarra; *Oiarzabal*, oiartzuarra; *Arrola*, legazpiarra eta *Enparan*, azpeitiar eta irundarra". Honez gainera, bakoitzaren etimolojia ematen saiatzen da,² Telesforo Aranzadiren epaitza atsegin zaio: "mesatizefaloa" da. "Ez dakit zergatik, nire gaztaroan, euskaltzale sentitu nintzen (...) Zestuara heldu nintzenean ulertu nuen Euskalerrikoa zela nire klima".³ Atsegin zaio, baitere, Euskalerriko "giro ezea, dituen zeru grisak eta lainoak, aran estuak, iralekuak eta zelai berdeak, ariztiak, pagadiak, inguruetako bidetsur gordeak, baserri ilun eta bakartiak"; pelota partiduak maite ditu; maiz sartzen ditu nobeletan euskal abestiak, horiek ere maite dituelako; militarrek ez ditu maite: "Ni, jatorriko antimilitarra naiz; euskaldunak ez dira inoiz armada arautuetako soldaduak izan"; aristokratik ere ez.

"Euskaldunen artean ez da aristokraziarik izan": euskal abesti herrikoiak maite ditu gaztedanik zahartzaroarte: "Abesti horietako batzu negar egin arazten naute". Bestalde hizkuntza erreformatzearen, judu-latin jatorriko kristau eraginaren eta bizkaitarrismoaren aurka dago, eta amets hau aitortzen du: "Ederra izango litzateke Espainia eta Frantzia bitarteko Bidasoa alderdian, euli, fraide eta karabinero gabeko herri txiki, txukun eta atsegina".⁴

Badaki don Piok honek esandako edo idatzitako gauz batzu herria mindu dutela, eta azalpen gisa azken hitz hauek idatzi zituen 1935en Donostian egin nahi izan zion omenaldian esateko: "... poztuko nintzake, hau posible balitz, jendeak... aurrerantzean jakingo balu... egiaren gose izan nintzela, hipokresia eta gezurra gorrotatu nituela, eta honen aurkakoak esan baziren ere, barru-barrutik, bihotzetik bere herria maite zuen euskalduna nintzela".⁵

¹ Ekin, Buenos Aires, 1968.

² Pio Baroja y Nessi, "Familia, infancia y juventud", o. T., Madrid: volumen VII.

³ *El País Vasco*, 1953.

⁴ Momentum... O.C., volumen V, 383.

⁵ "Artículos", volumen V, 1313.